

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3778

EBAZPENA, 2008ko maiatzaren 12koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasleen Errektoreordearena. Honen bidez agindua ematen da UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuaren Arautegia Euskal Herriko agintaritzaren aldizkarian argitaratzeko.

UPV/EHUren Estatutueta 243. artikulua honako eskumen hau esleitzen dio unibertsitateko Gobernu Kontseiluari, besteak beste: araugintzarako ahalmena erabiliz, Estatutuak garatu eta aplikatzeko arauak nahiz unibertsitatearen arauak onartzea, Estatutueta aurreikusita egon zein ez, bai eta UPV/EHU aplikatzeko bestelako arauak ere.

Horrela, bada, Gobernu Kontseiluaren Funtzionamenduari buruzko Arautegian araudien garapenari buruz zehaztutakoa kontuan hartuta, Gobernu Kontseiluak, 2008ko maiatzaren 8ko bileran, onartu egin zuten UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuaren Arautegia, eranskinean jasota dagoen moduan.

Azkenik, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, 10.2 artikuluan dio antolaketaren eta jarduteko moduen gainean unibertsitateak emandako arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko direla eta ez direla indarrean jarriko harik eta testuak oso-osorik argitaratu arte.

Hori guztia kontuan hartuta, honakoa

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Agindua ematea UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuaren Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, eranskinean ageriko den moduan.

**Bigarrena.**– Arautegia indarrean sartuko da argitaratzen den egunean.

**Hirugarrena.**– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren kontra egiteko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan.

Leioa, 2008ko maiatzaren 12a.

Irakasleen errektoreordea,  
JUAN JOSÉ UNZILLA GALÁN.

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

3778

RESOLUCIÓN de 12 de mayo de 2008, del Vicerrector de Profesorado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento del Servicio de Inspección de la UPV/EHU.

El artículo 243 de los Estatutos de la UPV/EHU encomienda al Consejo de Gobierno de la UPV/EHU la competencia de ejercer la potestad reglamentaria aprobando las normas de desarrollo y aplicación de estos Estatutos y de organización universitaria, se encuentren o no previstos en los mismos, así como de la demás normativa aplicable en la UPV/EHU.

Para ello, y según el procedimiento de desarrollo normativo regulado en el Reglamento de Funcionamiento del Consejo de Gobierno, en su sesión de 8 de mayo de 2008 este órgano aprobó el Reglamento del Servicio de Inspección de la UPV/EHU, en los términos recogidos en el anexo.

Por último, el artículo 10.2 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, dispone que las normas de organización y funcionamiento de la universidad serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco y no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos.

Por todo ello,

RESUELVO:

**Primero.**– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento del Servicio de Inspección de la UPV/EHU, en los términos recogidos en el anexo.

**Segundo.**– Este Reglamento entrará en vigor el mismo día de su publicación.

**Tercero.**– Contra este acuerdo, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir de su publicación.

En Leioa, a 12 de mayo de 2008.

El Vicerrector de Profesorado,  
JUAN JOSÉ UNZILLA GALÁN.

## ERANSKINA

Euskal Herriko Unibertsitateko zerbitzuen ikuskaritzaren egitura eta eginkizunei buruzko arautegia.

Gobernu Batzarrak 1999ko otsailaren 3ko bileran onartu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Zerbitzuen Ikuskaritzaren Egitura eta Eginkizunei buruzko Arautegia.

Ondoren, 1999ko otsailaren 4ko erabakiaren bidez, zerbitzuen ikuskaritza antolatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak.

Azkenik, 2001eko azaroaren 19ko zirkularraren bidez, unibertsitateko Irakasleen errektoreordeak zehaztu egin zituen Ikuskaritza Zerbitzuko kideek irakasleen lana ikuskatzeko jarraitu behar dituzten irizpideak. Irizpideok, hain zuzen, gorago aipatu den arautegian zehaztutako eskumen eta funtzioak betetzerakoan jarraitu beharrekoak dira.

Arloari buruzko testuak ugariak direnez, beharrezko ikusten da testu horiek guztiak bakar batean biltzea eta edukiak eguneratzea, modu honetara:

**1. artikulua.**– Jarduera-eremua, mendetasuna eta osaera.

1.– UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuak irakasleek irakats-betebeharrak betetzen dituzten zaindu eta egiaztatzen du eta, era berean, laguntza ematen die ikasurtero irakats-eskaintza bideratu eta onartzen duten atal eta organoei.

2.– Dekanoek eta zuzendariak edo euren ordeztzeko izendatuak jarriko dituzte abian, ahalik eta azkarren, irakasleek irakats-betebeharrak betetzen dituztela kontrolatzeko beharrezkoak izan daitezkeen ekimenak, euren kabuz edo Ikuskaritza Zerbitzuarekin elkarlanean.

3.– Ikuskaritza Zerbitzua irakasleen alorreko eskumenak dauzkan errektoreordetzari atxikita egongo da, baina bizitza akademikoarekin zerikusia daukaten errektoreordetza guztiak koordinatuta burutuko du bere lana.

4.– UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuan Irakasleen zuzendaria egongo da, errektoreak jardunean dauden irakasle eta ikertzaileen artetik izendatuta. Ikuskariak ere egongo dira, eta horien lanpostuak UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuen zerrendan azalduko dira.

Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendari izango den irakasleak ordainsari osagarri bat jasoko du, errektoreordetzetako zuzendariak jasotzen dutenaren parekoa, eta irakats-betebeharretatik salbuetsia izan daiteke, neurri batean edo erabat.

## ANEXO

Reglamento sobre estructura y funciones de la inspección de servicios de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

La Junta de Gobierno aprobó, en su sesión de 3 de febrero de 1999, el Reglamento sobre estructura y funciones de la inspección de servicios de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Posteriormente, mediante Resolución de 4 de febrero de 1999, el Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea procedió a la constitución de la inspección de servicios.

Por último, por circular de 19 de noviembre de 2001, el Vicerrector de Profesorado de la Universidad, dictó las instrucciones a seguir por los miembros del servicio de inspección, durante el desarrollo y ejercicio de las competencias y funciones de la inspección de servicios de la UPV/EHU, previstas en el reglamento antedicho.

Ante la dispersión de textos existentes en dicha materia, se hace necesario refundir en uno único y actualizar las previsiones contenidas en aquéllos, de acuerdo con los siguientes artículos:

**Artículo 1.**– Ámbito de actuación, dependencia y composición.

1.– El Servicio de Inspección de la UPV/EHU es el servicio encargado de velar y comprobar el cumplimiento de las obligaciones docentes del profesorado y del apoyo a las Estructuras y Órganos implicados en la tramitación y aprobación de la Oferta Docente de cada curso.

2.– Las y los Decanos y Directores y Directoras, o quienes reglamentariamente les sustituyen, adoptarán en primer término y con la mayor rapidez, cuantas iniciativas resulten adecuadas para el cumplimiento y control del encargo docente del profesorado, por sí mismos o en colaboración con el Servicio de Inspección.

3.– El Servicio de Inspección estará orgánicamente adscrito al Vicerrectorado que tenga asignadas las competencias en materia de profesorado, y desarrollará sus funciones en coordinación con todos los Vicerrectorados que actúan sobre la vida académica.

4.– El Servicio de Inspección de la UPV/EHU estará compuesto por el Director o Directora de profesorado, que dirigirá el Servicio, designado por el Rector o Rectora de entre todo el personal docente e investigador que se encuentre en situación de activo y de las y los Inspectores de Servicios, cuyos puestos de trabajo formarán parte de la Relación de Puestos de Trabajo del PAS de la UPV/EHU.

El personal docente que asuma las funciones de Dirección del Servicio de Inspección percibirá el complemento retributivo equivalente al que en cada momento esté establecido para la Categoría de Director o Directora de Vicerrectorado, pudiendo ser eximido totalmente o parcialmente de sus obligaciones docentes.

**2. artikulua.**– Egoitza.

Ikuskaritza Zerbitzuak, egokiro jardun dezan, bulego bat izango du unibertsitatean, eta bere lana aurrera eramateko beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak jarriko zaizkio.

**3. artikulua.**– Eginkizunak.

1.– Honako hauek dira Ikuskaritza Zerbitzuaren eginkizunak:

Laguntza ematea ikastegi eta sailtako dekanok eta zuzendariak ikasturte bakoitzeko irakats-eskaintza tramitatu eta onartzeko zereginetan, betebeharrak akademikoak beteko direla bermatzeko. Era berean, informazio osagarria bilduko du, ikastegiak eta sailak urteroko jardunetik atera daitezkeenaz gain, hurrengo ikasturteko irakats-baliabideak optimizatze aldera.

Irakasleen irakats-betebeharrak zenbateraino betetzen diren aztertzea, eskola-orduak, tutoretzak edo ikasleari laguntza ematekoak barne, Gobernu Kontseiluak zehaztuko duen moduan. Aztertu egingo du, era berean, arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileek zein heinean betetzen duten ikastegian egoteko betebeharrak.

Laguntza ematea ikastegiak eta sailei, dekanok eta zuzendarien bitartez, irakasleen irakats-betebeharrak kontrolatzeko zereginetan.

Irakasleen ordutegia kontrolatzeko mekanismoak koordinatzea, eta arlo horretako arauak betetzen direla zaintzea.

Irakasleen irakats-jardunari buruzko arauak betetzen direla zaintzea.

Errektoreak irakasle bati diziplina-espedita ireki diezaiola proposatzea irakasleen alorrean eskumenak dauzkan errektoreordeari, irakasle horrek portaera zigorgarria izan badu irakats-betebeharrak edo zerbitzuarekin zerikusia daukaten bestelakoak betetzerakoan.

Eskatuko zaizkion txostenak egitea.

**4. artikulua.**– Jarduteko prozedura.

1.– Ikuskaritza Zerbitzuak Jarduteko Planaren araberako eramango ditu aurrera ohiko eginkizunak. Plan hori onztat eman beharko du errektoreak ikasturte bakoitzaren hasieran, Unibertsitateko Irakasleen Batzordearen iritzia entzunda, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio.

Jardute Planaren honako hauek jasoko dira: irakasleen irakats-jardueren ordutegia kontrolatzeko mekanismoak koordinatuko dituzten neurriak, ikastegietara bisitak egiteko planen diseinua, ikastegiak eta sailei esparru honetan dagozkien jardueretako koordinazioa, eta irakats-betebeharrak kontrolatzeko gainerako elementuak. Plana egiteko kontuan hartuko dira errektoreordeak eta

**Artículo 2.**– Sede.

Para el adecuado funcionamiento de la Inspección, se les habilitará sede propia en las dependencias de esta Universidad con los medios necesarios para el desarrollo de la actividad específica.

**Artículo 3.**– Funciones.

1.– El servicio de inspección asumirá como funciones las siguientes:

El apoyo a los y las Decanas y los y las Directoras de Centros y Departamentos en la tramitación y aprobación de la Oferta Docente de cada curso, con el objeto de garantizar el cumplimiento de las obligaciones académicas, a la vez que recabar información complementaria, sin perjuicio de la que deriva de la actividad anual de los Centros o, en su caso los Departamentos, para optimizar los recursos docentes del curso siguiente.

Recabar información acerca del cumplimiento de Encargo Docente asignado a cada profesor o profesora, incluyendo las obligaciones docentes y de tutoría o asistencia al alumnado, así como las obligaciones de permanencia del Personal Docente e Investigador en régimen de dedicación a tiempo completo en la forma que se determine por el Consejo de Gobierno.

Colaborar con los Centros y Departamentos, a través de los y las Decanas y los y las Directoras, en el control del cumplimiento de las obligaciones docentes del profesorado.

Coordinar los mecanismos de control horario del profesorado, velando por el cumplimiento de las normas que lo rijan.

Velar por el cumplimiento de las normas reguladoras de la actividad docente del profesorado.

Proponer al o la Vicerrectora que tenga asignadas las competencias en materia de Profesorado la iniciativa para la incoación por parte del Rector o Rectora de expedientes disciplinarios al personal docente que pudiera haber incurrido en alguna conducta sancionable en relación con el cumplimiento de las obligaciones docentes u otras relacionadas con el servicio.

Emitir cuantos informes le sean requeridos.

**Artículo 4.**– Procedimiento de actuación.

1.– El Servicio de Inspección desarrollará sus funciones de carácter ordinario de acuerdo con un Plan de Actuación que, a comienzos de cada curso académico, se someterá a la aprobación del Rector o Rectora, previo informe de la Comisión de Profesorado Universitario, y que se dará a conocer al Consejo de Gobierno.

El Plan de Actuación contendrá las medidas para coordinar los mecanismos de control horario de las actividades docentes del profesorado, el diseño de planes de visitas a Centros, la coordinación con las actuaciones propias de los centros y Departamentos en esta materia y otros elementos de control del Encargo Docente y se confeccionará teniendo en cuenta las propuestas y suge-

gerentziak euren eskumenen esparruan egingo dituzten proposamen eta iradokizunak, bai eta errektoreak xedatuko dituen norabide eta lehentasunak ere.

2.– Ikuskaritza Zerbitzuak Jardute Planari jarraiki jardungo du, edo unibertsitateko kideren batek irakasleen irakats-betebeharren gainean jarritako salaketa edo kexen ondorioz, oinarrituak badira. Salaketa faltsua izan bada, edo asmo txarrez egindakoa, erantzukizuna eskatuko da.

3.– Aurreko puntuetan adierazitakoaz gain, Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendariak esaten dizkion guztietan jardungo du zerbitzuak.

4.– Ikuskaritza Zerbitzuak, bere eginkizunak betetzeko, beharrezko ikusten dituen bisitak egingo ditu ikastegi eta sailetara. Horrela, bada, eskatuko zaien informazio guztia eman beharko diete arduradunek Ikuskaritza Zerbitzukoiei, ordutegiei buruzkoa, irakats-betebeharrei buruzkoa edo zerbitzu horri arautegi honen bidez esleitzen zaizkion eginkizunekin lotutako beste edozein gairi buruzkoa.

Beraz, irakasleek ikastegi eta sailetan beren lan-orduetako betebeharrak zein heinean betetzen dituzten jakiteko (1983ko martxoaren 29ko Agindua, unibertsitateko irakats-lanaldiari lotutako gutxieneko bete-beharrei buruzkoa), Ikuskaritza Zerbitzukoek egingo dituzten jarduerak honako argibide eta arauei jarraiki egin behar dira:

Irakasleen alorrean eskumenak izango dituen errektoreordearen edo irakasleen zuzendariaren agindupean, ikuskatzailea ikastegi edo saileko kargu akademiko gorenarengana edo, hori egon ezean, bere orde aritzeko izendatutakoarengana joango da eta, identifikatu ondoren, ikastegira edo sailera joatearen arrazoia adieraziko dio, hau da: azaldu egingo dio zergatik bertaratu den egiaztatza ikuskatuko duen irakasleak irakats-betebeharrak zein heinean betetzen dituen (eskola-orduak, tutoretzak edo ikasleari laguntza ematekoak).

Adierazitakoa egiteko, aurreko atalean aipatutako kargu akademikoa bertaratzea eskatuko du eta harekin batera egiaztatu egingo du egun horretan zein heinean betetzen ari diren beren irakats-betebeharrak ustez instalazio haietan (gela, laborategi, tailer, bulego eta abarretan) beren irakats-betebeharrak betetzen egon beharko lirakeen irakasleak.

Ikastegi edo saileko kargu akademikoak kasuan kasuko irakasleari ikuskatzailea aurkeztuko dio, eta ikuskatzaileak akta egingo du gorabeherak edo bere ikuskapenaren arabera Prozedura Bateratuan zehaztutakoarekin bat ez datozenak adierazteko.

rencias que hagan los Vicerrectores y Vicerrectoras y la Gerencia en el ámbito de sus competencias, así como las directrices y prioridades que señale el Rector o Rectora.

2.– El Servicio de Inspección podrá actuar como consecuencia del Plan de Actuación o por denuncias o quejas sobre el incumplimiento de obligaciones docentes del profesorado realizadas por cualquier miembro de la comunidad universitaria, cuando se aprecie en ellas fundamentos suficientes. Se depurarán las responsabilidades que correspondan en caso de que se pruebe la falsedad o mala fe de la denuncia.

3.– Con independencia de lo indicado en los puntos anteriores, el Servicio de Inspección podrá actuar en todo momento a requerimiento de su Director o Directora.

4.– En ejercicio de sus funciones, el Servicio de Inspección realizará las visitas a los Centros y Departamentos que considere oportunas. Para ello, sus responsables deberán facilitar toda la información que les sea requerida por el Servicio de Inspección sobre horarios, asignación de docencia, y sobre cualquier otra cuestión relacionada con las funciones que en el presente Reglamento se asignan a dicho Servicio.

En consecuencia, con el objeto de llevar a cabo las actuaciones que permitan tener conocimiento, en los Centros y Departamentos respectivos, del cumplimiento del Encargo Docente asignado a cada profesor o profesora durante su jornada laboral (Orden de 29 de marzo de 1983 sobre cumplimiento de obligaciones mínimas en materia de jornada docente universitaria), se seguirán las siguientes instrucciones y pautas:

Bajo instrucción del Vicerrector o Vicerrectora que tenga asignadas las competencias en materia de Profesorado o del Director o Directora de Profesorado, el Inspector o Inspectora se personará e identificará ante el máximo Cargo Académico del Centro o del Departamento o en su defecto ante el que reglamentariamente le sustituya, poniendo en su conocimiento el motivo y finalidad de proceder personalmente a verificar y comprobar «in situ» el cumplimiento de las obligaciones docentes (lectivas, tutorías o asistencia al alumnado) que les están atribuidas durante esa jornada a aquellos profesores y profesoras concernidas por la actuación inspectora.

Para lo anterior, solicitará la presencia del Cargo Académico señalado para proceder a verificar y comprobar el cumplimiento de las obligaciones docentes del profesorado en las instalaciones (aulas, laboratorios, talleres, salas, despachos, etc.) donde se espera previsiblemente se encuentre o encuentren desarrollando su encargo docente señalado para ese día.

Una vez que por el Cargo Académico del Centro o Departamento al profesor o profesora afectada le ha sido presentado e identificado el Inspector o Inspectora, éste levantará diligencia o acta circunstanciada de todas aquellas observaciones, aspectos, falta de coincidencias que en relación con el cumplimiento del encargo docente grabado según el Procedimiento Integrado, observe «in situ» durante su actuación.

Aktan honakoak zehaztu beharko ditu:

Zein leku, egun eta ordutan egin den ikuskapena.

Partaideen datu pertsonalak eta akademikoak.

Prozedura Bateratuan zehaztutakoaren eta bertan ikusi eta egiaztatutakoaren artean dagoen aldea, bai eta bestelako gorabehera batzuk ere.

Partaideen sinadura edo, horietako baten batek akta sinatu ez badu nahi, horri buruzko diligentzia.

Irakasleari eta lekuko izan den kargu akademikoari aktaren kopia bana emango zaie. Irakasleak hamar egun izango ditu, gutxienez, alegazioak egin eta egokituz hartzen dituen dokumentuak aurkezteko.

Irakasleen alorrean eskumenak dauzkan errektoreordeak aurreko tramiteak behin jasota, errektoreari helaraziko zaizkio tramiteekin jarrai dezan, beharrezkoa izanez gero.

Arautegi honetan jasota ez dagoenerako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio.

**5. artikulua.**– Laguntzeko eginbeharra.

Agintari akademikoek, funtzionarioek eta gainerako langileek (unibertsitatean daukaten maila edo kargua eta jardute-eremua eta eskumenen alorra dena delakoa izanda) laguntza eman beharko diote Ikuskaritza Zerbitzuari bere eginkizunak bete dituzan, bai eta ikasleen kontseiluek ere, arautegi honetako 4.4 artikuluan adierazitakoari kalterik egiteke.

Laguntzarik eman ezean, Ikuskaritza Zerbitzuak jakinaren gainean jarriko du errektorea.

Edonola ere, laguntzeko betebeharra dela-eta, Ikuskaritza Zerbitzukoek ahalegina egingo dute ikuskatutako zerbitzuen funtzionamendua ahalik eta gutxien eragozteko.

**6. artikulua.**– Egindako jardueri buruzko txostena.

Ikuskaritza Zerbitzuak egindako jardueri buruzko txostena egingo du urtero, bai eta irakats-eskaintzaren betetzeari buruzkoa ere, eta jakinaren gainean jarriko du irakasleen alorrean eskumenak dauzkan errektoreordea.

En la formalización y cumplimentación de la diligencia o acta circunstanciada deberán constar los siguientes extremos:

Lugar, fecha y hora en que se producen las actuaciones inspectoras.

Datos personales y académicos de los intervinientes.

Circunstancias del grado de coincidencia entre lo grabado en el Procedimiento Integrado y lo verificado y comprobado «in situ», así como cualesquiera otras cuya mención se considere oportuna.

Firma de los intervinientes o diligencia relativa a la negativa a firmar el acta por parte de alguno de los mismos.

Cumplimentada la actuación anterior, se dará copia al profesor o profesora afectada y al Cargo Académico que ha presenciado la actuación inspectora. El profesor o profesora afectados dispondrán de un plazo mínimo de 10 días para realizar las alegaciones y aportar la documentación que estimen oportunas.

Recibidos los anteriores trámites por el Vicerrector o Vicerrectora que tenga asignadas las competencias en materia de Profesorado, se dará traslado, en su caso, al Rector o Rectora para su trámite.

En lo no previsto en este reglamento se seguirá lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 5.**– Deber de colaboración.

Todas las autoridades académicas, funcionarios y demás personal sea cual fuere su rango o cargo y ámbito de acción y competencia dentro de la Universidad, así como los Consejos de Estudiantes, deberán prestar la ayuda y colaboración necesaria al Servicio de Inspección en el desempeño de sus funciones, sin perjuicio de las previsiones específicas del artículo 4.4 de la presente normativa.

En caso de incumplimiento de esta obligación el Servicio de Inspección pondrá en conocimiento del Rector o Rectora la negativa del apoyo solicitado.

En todo caso, en el marco de este deber de colaboración, el personal del Servicio de Inspección procurará interferir lo mínimo posible en el normal desenvolvimiento de los servicios inspeccionados.

**Artículo 6.**– Informe sobre las actividades realizadas.

El Servicio de Inspección elaborará un informe periódico anual sobre las actividades realizadas, así como sobre el cumplimiento de la Oferta Docente, del que dará traslado al Vicerrectorado que tenga asignadas las competencias en materia de Profesorado.